

IRAKURKETA-GIDA

Maitasuna zailegia da

Andrés Guerrero

begiko

Maitasuna zailegia da

Andrés Guerrero



LIBURUAREN AURKEZPENA

Egile eta irudigilea

Andres Guerrero Trujillon (Extremadura) jaio zen 1958an. Zortzi urte zituela, haren familia Madrilera joan zen bizitzera. Marrazki-koadernoak eta arkatzak besapean zituela egin zuen bidaia Andrések. Ordurako marrazkilaria izan nahi zuen. Amets bat.

Orain Madrilgo mendietako herrixka batean bizi da. Azkenean, bere liburuaren egile eta irudigile bihurtu da, eta bide hori, dioenez, oso poliki egin du.

Liburua

Maitasuna zailegia da liburuan, maitasunaren gaia jorratzen duten hamabi kontakizun grafiko biltzen dira. Hazten laguntzen duten amodioak, kaltegarriak, erantzun positiboa dutenak edo ez dutenak, gogoratuak... Gerta daitezkeen maitasun-istorioen lagin bat besterik ez. Liburuaren gaian eta formatuan batasuna dago, baina kontakizun bakoitzak ere badu berea, eta bereizita irakurri eta azter daitezke.

Irudien eta testuaren arteko elkarriketak irakurketa lineala errazten du, baina, horrez gain, irakurlea entrenatu egiten du: interpretazioan, esan gabearen eta zentzu bikoitzaren irakurketan... Irakurle aktiboa eskatzen du liburuak, istorioak osatuko dituen.

Zergatik irakurri liburu hau?

Eleberri grafikoa genero bereziki egokia da irakurzaletasuna eta irakurmena sustatzeko –irudia eta testu idatzia nahasteari esker, hobeto asimilatzen da eta interesa areagotzen du. Horrelako testuen bidez, eskura jarri nahi zaizkie ikastetxeei eta gurasoei beren ikasleen edo seme-alaben ulermen-mailara egokitutako materialak; eta irakurketa errazaren metodologia ere erabiliko da, behar bereziak dituzten gazteen eskakizunetara moldatzeko tresna garrantzitsu gisa.

Liburu honek (eta, beraz, gidak) sentimenduak ditu ardatz: nola ulertu, nola kudeatu eta, zenbaitetan, nola egin haiei aurre. Eta ez maitasuna soilik, baita maitasunik eza, autoestimua, porrota, xenofobia, bortizkeria, ezintasuna eta abar ere. Hau da, sarritan gaina hartzen diguten sentimenduak, batzuetan haiek nola kudeatu ez dakigula. Eta nerabezaroan gertatzen dira lehenbizi horrelakoak, ia beti.

Horregatik, ikasgeletan kontuan izan behar den beste irakaspen bat izango da oraingoan irakurmenaren eta adierazpen-gaitasunaren helburua: adimen emozionala.

Proposamen hau irakurketa-demokraziaren eta irakurketa bidezko gizarteratzearen printzipioan oinarritzen da. *Maitasuna zailegia da* liburuak IE (Irakurketa Erraza) europar zigilua du, eta liburuak ulertzeko eta onartzeko prozesuan askotariko kolektiboek hartu dute parte: nerabeek, etorkinek, adimen-desgaitasuna edo irakurmen-zailtasunak dituzten pertsonak, bai eta irakurtzeko motibazio edo ohi-tura handirik ez duen jendeak ere.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Poemak, bertsoak eta kopla zaharrak irakurri, entzun eta errezipitatzea.

Literatura gozamen-iturritzat hartzea.

Literatura-lanekiko sentsibiltate estetikoa garatzea.

Adierazpen baztertzaileez, androzentrikoez eta sexistez ohartzea eta ekiditea.

Zientziarako gaitasuna

Osasuna kalte dezaketen portaerekiko jarrera arduratsua.

Sexu-osasuna eta -higienea. Metodo antikonzeptiboen azterketa. Sexu-transmisioko gaixotasunak.

Gizakiaren sexu eta sentimenduen bereizketak eragiten dituen desirak eta interesak kontuan hartzen dituen harremanen eta sexu-jokabidearen garapena.

Arterako gaitasuna

Musika entzutea eta hura komunikazio modua, jakintza-iturria eta aberastasun pertsonalerako bidea dela balioestea.

Besteri entzuteko eta errespetatzeko ohiturak eskuratzeko interesa izatea.

Musika balioestea, hezkuntza osoaren eta pertsonen garapenaren alderdi garrantzitsua den aldetik.

Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna

Hitzik gabeko kodeek, hau da kontakizun grafikoez, irudiek, ikonoek..., transmititzen dituzten kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaketak eta iritziak interpretatzea.

Norberaren asmoei hobekien erantzuten dioten komunikazio digitaleko tresnak (sakelekoak, posta elektronikoa...) hautatzen jakitea.

Sareko arriskuak eta mehatxuak ulertzea; sare sozialen mundua besteekin elkartzeko espazio gisa baloratzea, baina haren mugak eta arriskuak kontuan izanda.

Elkarbizitzarako gaitasuna

Norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteenak adi entzutea eta kontuan hartzea.

Enpatia-sentimendua garatzea.

Pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortzea.

Ulertzea ezin daitekeela inor torturatu edo baztertu bere sexu-orientazioagatik, erlijioagatik, larri koloreagatik...

Izaten ikasteko gaitasuna

Autoestimua garatzea, hau da, norbere buruaren gaineko balioespen positiboa eta errealista.

Autonomia garatzea, erabaki pertsonalak hartu eta gauzatzeko ahalmen gisa ulertuta, eta norberaren ekintzen eta bizitzaren erantzule izanda.

Norberak entzute aktiborako eta enpatiarako duen gaitasunaren diagnostikoa egitea.

Diskriminazio-egoerak erregulatzea.

Balioetan hezteak

Liburuan oinarrituta, zenbait balio landu daitezke, hala nola errespetua, egia, zintotasuna, ulermena, elkartasuna eta enpatia, sormena eta onarpena... Horiek guztiak oinarritzeko sentimenduak dira, harreman osoak eta osasuntsuak finkatzeko eta garatzeko.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Eleberri grafikoa

Maitasuna zailegia da eleberri grafikoa da, eta bertan etengabea da irudien eta testuen arteko elkarrizketa. Istorio bakoitza bereiz irakurtzen da, baina guztiek dute gai bera (egile-irudigile bera izateaz gain, noski), eta horrek batasuna ematen dio liburuari, maitasun-istorioen antologia labur bat balitz bezala.

Lehen hurbilketa egiteko, gure ikasleei liburuari gainetik begiratzeko eta generoa adierazten saiatzeko eskatuko diegu. Eleberri bat al da? Ala komiki bat? Testu guztiek itxura berdina al dute? Tituluaren arabera, nolako amaiera izango dute istorioek?

Liburua irakurri ondoren, interesgarria izan daiteke liburuko kontakizunen arteko loturari, formatu desberdinei eta izenburuari buruz hitz egitea. Istorioak bat datoz errealitatearekin: ez daude bi maitasun-istorio berdin.

Maitasuna zailegia da · 1. jarduera

Kontakizun honekin lotuta proposatzen dugun jardueraren helburua da gazteek birtualtasuna eta fisikotasuna bereiztea, bai eta haien harremanak kudeatzen jakitea ere sare sozialen mundu konplexuan. Internetek eratutako espazioan erraz partekatzen dira emozioak eta ezagupenak, baina arriskuak ere baditu, hala nola ziberjazarpena edo sentimenduak hutsaltzea, eta delitu-sareetarako adingabeak erakartzea ere bai. Horregatik, teknologia berrien erabilerari buruz gogoeta egiten lagunduko duten galdera batzuk proposatuko ditugu, eta norberaren sentimenduei eta haiek adierazteko moduari buruz hausnartzeko ere balioko dute galderok.

Gogoeta gidatzeko, geure buruaren baitan gertatzen denarekin lot dezakegu birtuala, eta ahalegindu ikusarazten sarritan iruditzen zaiguna baino askoz sinpleagoa dela errealitatea.

Esnatu beharra daukazu · 2. jarduera

Hasteko, pertsonaiaren barne-bakarriketari erreparatuko diogu (koman dagoen neska batekin duen elkarrizketa da, egiaz). Mutila ospitalean sartzeaz dagoela erakusten duen binetak ematen dio zentzua istorio guztiari. Orduan uler dezakegu zertaz ari den izenburua eta zertara datorren eguneroko «plazerak» banan-banan aipatzea. Gure aldarteetan eragin positiboa duten egoerei eta gauzei buruz hitz egiteko balia dezakegu hori: gorputzaren sentsazioak, usainak, zenbait melodia...

Istorioaren amaiera irekia denez, ikasleei amaiera posible bat idazteko edo marrazteko eskatuko diegu. Horrela, lengoaia desberdinen bidezko komunikazioa landuko dute eta ikasleen sormenaren garapena bultzatuko dugu.

Negarrez nago · 3. jarduera

Zenbait galdera proposatuko ditugu, ikasleei gatazkaren oinarria elkar ulertzeko ezintasunean dagoela ikusten laguntzeko. Biek ez dute gauza berari buruz hitz egiten. Garrantzitsua da ikasleak konturatzea neskak zer gertatzen zaion ez esatea erabaki duela.

Mutilaren irudiari buruz galdetzean, arina eta konpromisorik gabea ematen duenez, litekeena da gure ikasleek ondo ez ikustea. Dena dela, galde diezaiekegu ea mutilak informazio guztia kontuan izanda jokatzeko duen edo, haurdun dagoela mutilari ezkutatuta, neskak ondo jokatzeko duen. Fitxaren azken zatia gure ikasleei egoera gatazkatsu hori hitzen bidez adierazten laguntzeko da; haiengan neskak ziur sortuko duen enpatiaren bitartez, hain zuzen. Arazoei komunikazioaren bidez aurre egiten ikastea eta besteen laguntza edo aholkua bilatzen ikastea ezinbestekoa da bizitzan zehar, baina, batez ere, nerabezaroan.

Zurekin ametsetan · 4. jarduera

Testu honen azterketan, maitasunak gure bizitzetan duen garrantziak izan behar du ardatz. Protagonista gorpil-aulki batean dago. Horregatik egiten du amets salto, dantza eta lasterka egitearekin... Dena dela, mutilaren desioen erdigunean neska-lagunarekin amets egitea dago. Neskak mugiarazten du mutila, ez hankek. Proposatzen ditugun galderak ikasleak harreman horretaz jabetzeko dira.

Sakontzeko, kontakizun hau eta «Honelakoxea naiz» izenburua duena aldera daitezke, eta bien arteko desberdintasuna adierazi: hazten eta gehiago izaten laguntzen digun maitasunaren eta mugatzen gaituen maitasun kaltegarriaren artekoa, alegia.

Gaitzerdi! · 5. jarduera

Nahikoa zabalduta dago besteekin ondo konpontzeko gustu, zaletasun, estilo, ideologia... berdinak izan behar ditugula. Ez da erraza desberdintasunen gaiari heltzea, guztia ez baita ez zuria, ez beltza. Garrantzitsua da gure ikasleak konturatzea (ikaskuntza honek guztiontzat balio du, noski) non dagoen haien iritziz adiskidetasunaren gakoa, eta zergatik bestea desberdina izateak, traba egin beharrean, aberastu egiten duen.

Jarduera honetan proposatzen ditugun bi zerrendek, bai eta binaka egindako lanak ere, gure ikasleen autoezagutza indartzen lagunduko digute, bai eta desberdintasunen errespetua eta balioespena ere.

Honelakoxea naiz · 6. jarduera

Zoritxarrez, genero-indarkeria behin eta berriz da hizpide gure gizartean, eta gero eta kasu gehiago ikusten dira nerabeen arteko harremanetan. Galdera errazen bitartez, ikasleek genero-indarkeria erabiltzen duenaren jokabidea (jazarpena, eraso, zelatan egotea, zeloak, indarkeria-leherketak...) argi bereiztea bilatzen dugu, lehenik eta behin. Jokamolde horiek ezagutzeak ondo bereizten eta antzeko egoeretarako prest egoten lagunduko dio ikasleari.

Bigarrenik, «zero tolerantzia» sustatu nahi da. Erromantizismoaren edo maitasunaren ideia faltsu batek horrelako jokabideak zuritzea ekar dezake (gazteek ulertu behar dute «hain biziki maite nauenez, zeloak ditu, ni galtzeko beldur da» premisa guztiz faltsua dela). Harremana aztertzean eta Aneren (protagonista) lekuan jartzetan, horren arriskuaz kontzientzia hartzea nahi da. Izan ere, fitxa honetako azken jarduerako formulazioak oso argia izan behar du: Anek Jokinekin zuen harremanari zergatik utzi dion azaltzen du; inoiz ere ez dugu proposatu behar berriro adiskidetzea edo «maitasunaren izenean bere buruari uko egitea»; garbi utzi behar da Jokinek arazo larria duela eta hori konpontzeko profesionalen laguntza bilatu behar duela. Orduan soilik izango du harreman osasuntsua bikotekidearekin.

Zuretzako gutuna · 7. jarduera

Nerabearoko zailtasun handienetako bat ezetza kudeatzen ikastea da, eta ez amodioari dagokiona soilik. «Beti ezin dela irabazi» ikastea da helduaroan sartzeko irakaskuntza erabilgarrienetako bat. Nerearen istorioaren bitartez, horren gainean gogoeta egiteko aukera eskaintzen dugu: Nereak Jokinekin, gustatzen zaion mutilarekin, komunikaziorik ez izatea erabakitzen du; desagertu egiten da eta harekin edozein harreman izateari uzten dio. Proposatutako jardueretatik abiatuta, ikasleak zenbait galdera egingo dizkio bere buruari (Ulertzen al du Nerearen portarea? Egokiena iruditzen al zaio? Zerk urruntzen du maitasuna adiskidetasunetik? Ondo bereizten al ditugu bi sentimenduak?), eta horiek bere sentimenduak ulertzen eta porrotari aurre egiten lagunduko diote.

Beste alde batetik, Jokinen eta Aimarren arteko amodio-istorioak aukera ona ematen digu harreman homosexualak merezi duten normaltasunez eta naturaltasunez tratatzeko. Horretarako, gure ikasleei ikusaraziko diegu liburuan agertzen den istorioetako bat besterik ez dela Aimarren eta Jokinen arteko harremana.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu istorio honek «Bigarren gutuna» eta «Zenbait urte geroago» istorioetan jarraituko duela. Egoki irizten bazaio, hiru kontakizun horiek batera landu daitezke, istorioari jarraitzea errazagoa egiteko. Liburuko ordenari jarraitzea erabakiz gero, egileak proposatzen duen jolasa ikusaraziko diegu ikasleei: beste kontakizun batzuk tartekatuta aurkezten ditu, istorioaren denborahautura markatzeko. Eleberri grafikoa ez dela bigarren mailako generoa erakusten diete horrelako baliabideek gazteei, eta irakurle gisa formatzen laguntzen die.

Askatasuna · 8. jarduera

Ikasleari xehetasunak ulertarazten ahaleginduko gara, ezinbestekoak baitira edozein testu guztiz ulertzeko. Kasu honetan, Askatasunak hitz egiteko modua (*zuk ni urduri jarri, begiratzea niri gustatzen...*) bere jatorriaren adierazgarri da, neskak aukeratu-tako mozorroak (Askatasunaren estatua) izenarekin jokatzeko balio duen bezala.

Ondoren, bilbeari errepararaziko diegu: gazte xenofobo batzuekin protagonistek duten liskarra. Arazoei izena jartzea haiek ulertzen eta konpontzen hasteko lehen urratsa da: ikasleak jabetu behar du era guztietako fobiak ezinikusi gehiegizkoak eta irrazionalak direla; gainera, ez dute inolako zentzurik eta obsesiotik gertu daude. Beste fitxa batzuetan bezala, ikasleak protagonistekin enpatia izatea nahi dugu, oraingoan eszenaren ikusle bihurtuz. Idazmena eta argudiorako gaitasuna bultzatu nahi ditugu, eta ikasleek errespetuari eta guztien integrazioari laguntzen dioten ideiak barneratzea eta sistematizatzea.

Maitasun kantuak

Testu honen xumetasuna eta laburtasuna izan daitezke, hain zuzen, ulermena zailtzen duten elementuak. Aztertuz gero, gure ikasleei ulertzen lagunduko diegu, eta emozioak adierazteko tresnak bereganatzen ere bai; izan ere, emozioak transmititzen dituzten irudien bidez egindako poema bat da.

Poema hiru estrofatan egituratuta dago, eta haien arteko alderaketak egiten ditu egileak:

- Lehenean, nostalgiarekin eta tristurarekin lotzen den egoera bat aurkezten da: hostoak erortzea.
- Bigarrenean, hostoak amodiozko olerkiekin identifikatzen dira.
- Azkenik, hirugarren estrofan, maitasun-kantu arin eta goibelekin identifikatzen dira hostoak, haiek ere bakarti eta goibel erortzen baitira.

Gure ikasleei sentimendu bat aukeratzeko eta hura bizi izan duten une edo egoera bat gogoratzeko proposa diezaiekegu. Oroimen horretan oinarrituta, egoera bakoitzari izen bat lotu behar diote, eta hura labur deskribatzen ahalegindu, irudi sentsorialak erabiliz, horretarako.

Bigarren gutuna

Urteak igaro dira, eta orain Jokinek idazten dio Nereari. Narrazioaren jarraitutasuna azpimarratu eta protagonistak gogorarazi ondoren, oraingoan Nerearen sentimenduei buruz galde dezakegu. Jokinek ezetz esan zion Nereari, baina ezetz esateak bere lagunik onena (Nerea) galtzea ekarri zion Jokini.

Gutun honek irabazlerik ez duten bizitzako egoerei buruz (saihetsezinak dira, hala ere) gogoeta egiteko aukera ematen digu. Batzuetan, egia esateak (Jokinek Nereari esan zion bezala) egin nahi ez dugun kalte bat eragitea dakar. Dena dela, zintzotasunean eta errespetuan oinarrituta baino ez dira eraikitzen harreman egonkorrak.

Oroitzen al zara, aitona? · 9. jarduera

Nerabeek adinekoekin duten harremana ez da beti espero litekeen bezain erraza edo naturala. Fitxa honek bi helburu ditu: batetik, ondo ulertzea bizitza «nahitaezko ibilbidea» dela guztientzat, eta noiz edo noiz irakurle gazteari ere tokatuko zaiola adineko izatea; bestetik, bizitzako ibilbide hori, dena dela, bidaia zoragarria eta une onez betea izan daitekeela jabetzea. Baikortasuna, poza eta bizitzeko gogoia ere ikasgelan irakatsi beharrekoen artean sartu behar dira.

Zenbait urte geroago · 10. jarduera

Amaitzeko, berriro ere Nerearen, Jokinen eta Aimarren istorioari helduko diogu. Lehen galderaren bitartez narrazioaren jarraitutasuna landu ondoren (istorioari eta pertsonaiei buruz dakitena laburtzeko ere eskatuko diegu), protagonistekin zer gertatu den ikusiko dugu.

Jokin azkenean Nerearekin maiteminduta dago, baina «amaiera zoriontsuak» beti hori baino konplexuagoak direla nabarmen utziko diegu: Zergatik uzten du Aimarrek Jokin? Zer gertatu da bien artean? Aimarrek ez die egoerei bizkar ematen, eta Jokinek maite ez duela konturatzen denean, uztea erabakitzen du: zintzoa da, eta ez da haustura baten beldur, min egingo diola ziur dagoen arren. Gainera, Nerea ez bezala, Aimar ez da desagertzen: Jokinen sentimenduak onartzen ditu, eta haren adiskidetasuna mantentzen eta zaintzen du.

Azkenik, Aimarren esaldi bat erabiliko dugu ikasleak dakienari edo irakurketa honi esker ikasi duenari buruz hausnartzeko: benetan al da maitasuna sentimendu zailegia?

Ikertu

Kantaldi erromantikoa

«Eta zeuk galdetzen didazu?» istorioan, neskatoak bereak ez diren poema batzuk oparitzen dizkio mutil-lagunari; literatura espainiarreko oso ale ezagunak, alegia.

Ikasleei eskatuko diegu ikertzeko nor izan zen Gustavo Adolfo Béquér, zer garrantian bizi izan zen (Erromantizismoa) eta zein diren haren poema ezagunenetako batzuk.

Ondoren, musikaren munduan murgiltzeko eskatuko diegu ikasleei. Musikaren historian maitasuna da gehien jorratu izan den gaia; pop musikatik hasita, heavy gogorrenera arte. Mota guztietako maitasun-sentimenduak islatu dira abestietan: pozak, minak... Horregatik, ikasleei maitasuna jorratzen duten euskal-kanten zerrenda bat emango diegu:

- *Ilargia* (Ken Zazpi), *Negua joan da ta* (Zea Mays), *Laztana* (Latzen), *Zure doinua* (Lor), *Euri tanta bakoitzean* (Betagarri), *Lau teilatu* (Itoiz), *Gogoak* (Esne Beltza), *Behar zaitut* (Hesian), *Nire ondoan baziña* (Gatibu), *Bueltatzen* (Berri Txarrak)...

Zerrenda horretatik, ikasle bakoitzak bereziki gustatzen zaion maitasun-kanta bat hautatuko du, proposatutako taldeena edo ikasleak ezagutzen duen beste euskal talde batena, eta ikasgelan kantaldi bat antolatzeko eskatuko diegu.

Kantaldia antolatu aurretik, ikasle bakoitzak azaldu beharko du kanta hori zergatik hautatu duen, eta zer gustatu zaion gehien edo zer egin zaion deigarri. Funtsezkoa da jarduera erabateko errespetuzko giroan garatzea.

Kantaldia amaitu eta gero, galdetuko diegu zergatik uste duten amodioa eta desamodioa musikaren historiako betiko gaiak direla. Identifikatuta sentitu al dira inoiz kanta bateko letrarekin? Zertan fijatzen dira gehiago letran edo doinuan? Eztabaida bat antolatuko dugu, eta ikasleek maitasunaren unibertsaltasunari nahiz maitasun-sentimendu heterogeneotasunari buruz gogoeta egin dezaten ahaleginduko gara.

Eztabaidatu

«Maitasun desberdina»

Istorioetako gaien gaurkotasunak eta haiei buruzko ikuspegiak aukera asko ematen ditu ikasgelan eztabaidatzeko. Interesgarrienetako bat «maitasun desberdina» da.

Maitasuna zailegia da liburuko istorioetako askotan pertsona «desberdinen» arteko harremanak agertzen dira edo, besterik gabe, konbentzionala ez den maitasuna. Horrela gertatzen da «Zurekin ametsetan» edo «Askatasuna» istorioetan: lehenean, protagonista gurpil-aulki batean dagoen mutil bat da; bigarrenean, neska hegoamerikar bat. Biek dute edo hasten dute harreman bat, eta bikotekidea (haiek ez bezala) ez da ez desgaitua, ez atzerritarra, hurrenez hurren.

Ikasleei zenbait galdera erraz proposatuko dizkiegu: besteak beste, zer den haien-tzat «normala» izatea, zer arazo izan ditzaketen bikote horiek beren harremanetan eta nondik uste duten sor daitezkeela arazoak, protagonistengandik berengandik ala inguruneko (lagunak, bizilagunak, familia...) ulertu ezinetatik; edo uste al duten badagoela benetako arrazoi gaindiezinen bat («desberdintasunen» bat) ezinezkoa egiten duena bi pertsonen arteko maitasuna.

Edozein arrazoi dela-eta integrazio-arazoren bat duen ikasleren bat badago ikasgelan, eztabaida kontu handiz antolatu beharko dugu: ikasle horren heldutasunaren arabera, esperientzietako batzuk lehen pertsonan kontatzeko eska diezaiokegu. Nahikoa heldutasun ez badu, arreta handia jarriko dugu eztabaida «hirugarren pertsonan» garatu dadin; hau da, liburuko pertsonaiei buruz soilik hitz egin dadin eta parte-hartzeek pertsona horren sentimenduak mindu ez ditzaten.

Jarduera honen helburua harreman pertsonaletan eta sexualitatean (biak ere gai zailak) besteenganako errespetua sustatzea da, bai eta ikaslearen enpatia ere, urrunak egiten zaizkion errealitateei buruzkoa, bereziki.

Zero tolerantzia

«Honelakoxea naiz» istorioak arazorik zailenetako bat (genero-indarkeria) jartzen du mahai gainean, ez bakarrik ikasgeletakoa, baita gaur egungo gizarte osokoa ere. Funtsezkoa da nesken autoestimua sustatzea; eta garbi uler dezatela gaztetatik jarrera horiek ez dutela zerikusirik maitasunarekin.

Gaia jorratzeko, gure ikasleen adinerako moduko genero-indarkeriaren aurkako kanpaina bateko kartelak edo iragarkiak eraman ditzakegu (erakunde askok egin dute lan handia esparru honetan, eta irakasleen eskura jartzen dute). Guztion artean aztertuko ditugu kartelak: irudia, leloa, kolore-hautaketa... Jarraian, gazteei kartela «Honelakoxea naiz» istorioarekin lotzeko eta, taldeka, genero-indarkeriaren aurkako beste kanpaina bat diseinatzeko eskatuko diegu, Aneren (kontakizuneko protagonista) antzeko neskak tratatu txarrak ez onartzera bultzatzen.

Superheroiak

«Ezta Superman ere!» testu alaia eta xumea da. Maiteminduta sentitzen garenean egiteko gauza garen gauzei buruz hitz egiten digu. Supermanek balentriak egiten ditu, superbotoak ditu. Istorioko mutiak, ez. Baina gai da ez gosaltzeko, eta autobusa eta metroa ia hegan hartzeko, maite duen neska ikusteagatik soilik. Saria musu bat da, eta musu horrekin edozein superheroi baino zoriontsuago sentitzen da.

Gure ikasleak gai hau hizpide hartzera gonbidatuko ditugu: zer egiteko prest egongo ginateke maitasunagatik? Solasaldia errealitatearen mugen barnean mugi dadin ahaleginduko gara («Ilargia ekartzeko gai izango nintzateke», esaterako, ez da onargarria, oso erromantikoa eta heroikoa dirudien arren).

Testu honetan oinarrituta eztabaidatzeko beste ildo bat hau galdetzea da: zergatik sortzen duen maitasunak, sentitzen duenarengan, botere-sentsazioa, gauzak egiteko gogoia, ausardia...

Beste hizkuntza eta irakurketa batzuk: *Amodioa... artea*

Ikasleei azalduko diegu maitasuna era askotara ikusi dutela arteek Antzinaro klasikotik, eta estereotipoak eratu direla. Horrela, Romeo eta Julieta amodio eroaren eta bat-bateko maitemina sinbolo dira; Longo eleberrigile greziarraren Dafnis eta Kloe pertsonaiak, berriz, poliki-poliki sortzen den eta urteekin hazten den maitasunarena; Nartzisoren mitoa nork bere buruari dion maitasunaren sinbolo da, eta Safo emakume poeta greziarraren poesiak lesbianismoarekin lotu dira.

Estereotipo horiek eta beste batzuk aipatu ondoren, ikasleei artean edo literaturan maitale ospetsuen bikoteak bilatzeko eskatuko diegu. Nahi badute, telesailetatik, komikietatik, aldizkarietatik eta abarretatik ere har ditzakete adibideak. Ikaskideen aurrean pertsonaien maitasun-istorioa laburtu beharko dute (mintzamina praktikatu dute horrela), amodio hori eraikitzailea ala suntsitzailea izan den baloratzeaz eta balorazio horren arrazoiak emateaz gain.

Sortu

Kontrapoema

«Zerbait hausten da» istorioko narratzailea tristuraz beteta dago, hautsitako harreman bat dela eta. Zorionez, guztiok ditugu «funtzionatzen» duten harremanak: gure gurasoekin, gure lagunekin edo gure neska- edo mutil-lagunekin.

Gure ikasleei funtzionatzen duen harreman batean pentsatzeko eska diezaiekegu, eta poza adierazten duen poema bat bihurtzeko 45. orrialdeko poema. Lehen leerroak eman diezazkiekegu.

..... oroitzen naizen aldiro
zerbait pizten zait.

Barruko zerbait.

Hau da nire maitasun-istorioa...

Bukatzeko, azken kontakizun bat egiteko proposatuko diegu ikasleei; haiek konatatutako maitasun-istorio bat, hain zuzen. Eleberriko estiloari jarraitu behar dio istorioak: zuri-beltzezko marra soileko irudiak... Gainerakoa haien irudimenaren esku utziko dugu.

Lana hasi aurretik, azpimarratuko dugu helburua ez dela ahalik eta marrazki biritilenak lortzea, ez eta istorio harrigarriena idaztea ere, baizik eta norberaren sentimenduak eta iritziak adierazten asmatzea.

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

1. Maitasuna zailegia da

- Lehen istorioko protagonista «neska-lagun birtualak» uzten du. Azaldu zer den neska-lagun birtual bat eta zer alde dagoen horrelakoen eta normalen artean.

.....

.....

- Mutilak bere neska-laguna benetan ezagutzen duela iruditzen al zaizu?

.....

.....

- Zergatik hartzen eta itzaltzen du neskak mugikorra?

.....

.....



- Nola azaltzen du istorio honetako neska gazteak «maitasuna ez dela zailegia»? Zer lortzen du, zure ustez, mutila musukatzen duenean?

.....

.....

.....

2. Esnatu beharra daukazu

- Nori hitz egiten dio pertsonaiak? Zer gertatzen zaio pertsona horri?

.....

.....

- Bere iritziz mundua leku ederra egiten duten gauzak idazten ditu mutilak zerrenda batean. Idatzi zuri mundua eder bihurtzen dizuten hiru edo lau gauza. Ahalegindu sentsazio atseginak eragiten dizkizuten egoeretan pentsatzen.

.....

.....

.....


IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

2. Esnatu beharra daukazu (jarraipena)

- Istorioaren hasieran, ez dakigu ondo zer gertatzen den, nori idazten dion pertsonaiak eta zein den egoera. Baina binetetako batek haustura bat eragiten du, eta bat-batean guztiak zentzua hartzen du. Adierazi bineta hauetako zein den eta zergatik den hain erabakigarria.



- Asmatu amaiera bat kontakizun honetarako. Narrazio bat idatz dezakezu edo bineten eta elkarriketa-bunbuiloen bitartez marraztu.

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

3. Negarrez nago

- Zergatik ari da negar egiten neska? Zer gertatzen zaio?

.....

.....

- Mutilaren ustez, zergatik egiten du negar?

.....

.....

- Elkarriketan, mutilak hau dio: «Ezagutzen nauzu. Ez dut konpromisorik nahi» (39. or.). Zer esanahi du zuretzat *konpromiso* hitzak?

.....

.....

- Zer erabaki hartzen du neskak? Egia esaten al dio?

.....

.....

- Istorio honetako neska bakarrik sentitzen da. Eman dezagun mezu bat bidaltzen diola bere lagun onenari, zer gertatu zaion kontatzeko. Asmatu elkarriketa.

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

4. Zurekin ametsetan

- Istorio honetako protagonistak amets egiten du lasterka, jauzi, hegan eta abar egitearekin. Zergatik dira hain garrantzitsuak ekintza horiek harentzat?

.....

.....

- Istorioa ez genuke ulertuko bineta hau gabe. Zer datu ematen du ulertzeko?

.....

.....

.....

.....

.....



5. Gaitzerdi!

Istorio honetako protagonistak oso desberdinak dira. Hasteko, ez zaizkie gauza berdinak gustatzen.

- Idatzi orri batean zure gustuen eta zaletasunen zerrenda bat; jarri zoriontsu egiten zaituzten eta atsegin zaizkizun gauzak. Ondoren, trukatu zerrenda ikaskide batekin. Gauza berdinak gustatzen al zaizkizue? Zer egingo zenuke bion arteko aldeek elkarrengandik ez aldentzeko?

.....

.....

.....

.....

- Zure iritziz, zertan etorri behar da bat norbaiten lagun egin ahal izateko?

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

6. Honelakoxea naiz

- Zer arazo du Anek Jokinekin?

.....

.....

- Zure iritziz, ondo jokatzeko al du Jokinek? Azaldu zergatik zauden edo ez zauden ados haren jokabidearekin.

.....

.....

.....

- Ba al du justifikaziorik Aneren ahizparen erreakzioak? Zergatik?

.....

.....

.....

- Azken binetan Aneren ahizpak dioena ironikoa da. Ahalegindu azaltzen zergatik.

.....

.....

.....

- Eman dezagun Aneren egoeran zaudela. Idatzi mezu elektroniko bat Jokini, nola sentitzen zaren eta hura ikusteari zergatik utziko diozun azaltzeko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

7. Zuretzako gutuna

- Nereak gutun bat idatzi dio Jokini, gustuko duen mutilari. Zer kontatzen dio gutunean? Zure iritziz, zergatik ez dio sekula bidaltzen?

.....

.....

.....

.....

- Zure ustez, Nereak ondo erreakzionatzen al du Jokin Aimarrekin maiteminduta dagoela jakiten duenean?

.....

.....

.....

.....

- Zure iritziz, nola sentituko litzateke Jokin gutun hori jasoko balu?

.....

.....

.....

.....

8. Askatasuna

- Askatasuna, istorio honetako neska, Hego Amerikan jaio zen seguruenik. Testuko zer xehetasunek esaten digute hangoa dela?

.....

- Gabirelek eta Askatasunak aurre egiten diete jarrera xenofoboa duten mutil batzuei. Bilatu *xenofobia* hitzaren esanahia eta azaldu zure hitzekin.

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

8. Askatasuna (jarraipena)

- Eman dezagun parke horretan paseoan zabiltzala hori gertatzean. Zer esango zenieke mutilei? Askatasunari eta Gabireli lagunduko zenieke? Hala bada, nola?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

9. Oroitzen al zara, aitona?

- Alzheimerra oroimenari eragiten dion gaixotasun bat da. Imajinatzen al duzu zein beldurgarri izango litzatekeen zure oroimenak galtzea? Jarri zerrenda batean inoiz ahaztu nahiko ez zenituzkeen uneak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Nahi baduzu, kopiatu zure oroimenak paperezko orri bereiz batean eta gorde «oroimenaren kapsula» batean (edozein kutxak balio dezake; metalezkoa bada, hobe). Urtetik urtera handitu dezakezu zure zerrenda.

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

10. Zenbait urte geroago

- Zein dira istorio honetako protagonistak?

.....

.....

- Zergatik utzi zuen Aimarrek Jokin?

.....

.....

.....

- Zure iritziz, zer sentitu zuen Aimarrek Jokinen sentimenduak jakitean?

.....

.....

.....


- Istorioa Aimarren esaldi batekin amaitzen da: «Maitasuna zailegia da». Zure iritziz, arrazoi al du?

.....

.....

.....

.....



IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

Irakurmen-testa

Hurrengo galderetan, aukeratu egoki iruditzen zaizun erantzuna, eleberri grafiko hau osatzen dituzten istorioak ondo ulertu dituzun ikusteko.

1. Zenbat neska-lagun birtual izan ditu lehen istorioko protagonistak?

- ☐ a Bat.
- ☐ b Hiru.
- ☐ c Bost.

2. Nork idatzi zituen benetan «Eta zeuk galdetzen didazu» istorioko neurtitzak?

- ☐ a Isterioko neska protagonista gazteak.
- ☐ b José de Esproncedak.
- ☐ c Gustavo Adolfo Béquerek.

3. Zer mezu ez du bidaltzen «Negarrez nago» istorioko neska gazteak?

- ☐ a Haurdun nago.
- ☐ b Ez dut konpromisorik nahi.
- ☐ c Ondo egon zen, baina amaitu da.

4. «Honelakoxea naiz» istorioan, nor da Leire?

- ☐ a Jokinen neska-laguna.
- ☐ b Aneren ahizpa.
- ☐ c Aneren lagun bat.

5. Zer kirol egiten dute Aimarrek eta Jokinek «Zuretzako gutuna» istorioan?

- ☐ a Kontakizunean ez da informazio hori ematen.
- ☐ b Futbola.
- ☐ c Saskibaloia.

6. Nola deitzen dio «Zurekin ametsetan» istorioko neskak bere bikotekideari?

- ☐ a Txuri.
- ☐ b Laztana.
- ☐ c Mikel.

IZENA: MAILA:

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

7. Zer janari gustatzen zaio asko «Gaitzerdi!» istorioko mutilari?

- ☐ a Begetarianoa.
- ☐ b Txinatarra.
- ☐ c Italiarra.

8. Non ikasten du «Ezta Superman ere!» istorioko protagonistak?

- ☐ a Institutuan.
- ☐ b Unibertsitatean.
- ☐ c Kontakizunean ez da informazio hori ematen.

9. Noren laguna da Gabirel, «Askatasuna» istorioko protagonista?

- ☐ a Jakuerena, erasotzaileetako baten lagunarena.
- ☐ b Jakuerena, erasotzaileetako baten lehengusuarena.
- ☐ c Jakuerena, erasotzaileetako baten anaia txikiarena.

10. Non egiten dute topo Nereak eta Jokinek urte batzuk geroago?

- ☐ a Liburu-denda batean.
- ☐ b Kafetegi batean.
- ☐ c Klean.

Erantzunak

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

1. jarduera

- Neska-lagun birtuala internet edo aplikazio baten bidez ezagututako pertsona bat da; normalean, ez dago aurrez aurreko interakziorik. Neska-lagun "normala" hezur-aragizkoa da eta aurrez aurre egonik ezagutzen da; birtuala, ordea, ez du zertan hezur-aragizkoa izan behar eta interneteko txaten bitartez ezagutzen da.
- Ez, ematen du ez dutela inoiz elkar ikusi.
- Nahi duelako mutilak bere inguruan dauden gauzetaz konturatzea.
- Musu soil batekin edo ekintza sinple batekin adierazi ahal zaio beste pertsona bati berarengatik sentitzen dugun maitasuna. Mutila musukatzerakoan, berarekin maiteminduta dagoela adieraztea lortzen du, beraz, maitasuna adieraztea ez da hain zaila.

2. jarduera

- Ospitalean dagoen emakumeari hitz egiten dio. Koman dagoela.
- E.L.



- Ospitalera doala ikusi arte ez dugulako istorioa oso ondo ulertzen.
- E.L.

3. jarduera

- Neska haurdun dago eta deskubritzen du "aitak" ez duela konpromisorik nahi; mutilarentzako haien arteko harremana gau bateko rolloa baino ez zen izan.
- Mutilak uste du neskak berarekin maitemindu dela eta desamodio horrek eragin diola negarra.
- E.L.
- Neskak ez dio aitortzen haurdun dagoela.
- E.L.

Erantzunak

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

4. jarduera

- Protagonista gurpil-aulki batean dago eta egin ezin dituen gauzekin amesten du.
- Lehen aldiz agertzen da gurpil-aulkia eta ulertzen dugu mutilak ezin duela ibili. Gainera, asko maitatzen duen neska-laguna baduela ikusten da.

5. jarduera

- E.L.
- E.L.

6. jarduera

- Jokinek Ane psikologikoki txarto tratatzen du; une oro jakin nahi du norekin eta non dagoen.
- E.E: Jokinek ez du ondo jokatzeko, izan ere, bikote-harreman bat osasuntsua izateko, bakoitzak, bikotekidea mintzen ez duen bitartean, nahi duena egiteko eskubidea izan beharko luke.
- Hobe da gauzak elkarriketaren bitartez konpontzea. Baina, Jokin ez da haiengana joaten elkarriketa bat eduki-tzeko moduan, eta geldiarazteko modu bakarra horixe da.
- Jokinek Ane txarto tratatzeko erabiltzen duen aitzaki bera erabili du ahizpak.
- E.E:

Kaixo, Jokin!

Ane naiz, eta zurekin jarraitu nahi ez dudala esateko idazten dizut.

Azken aldian, gaizki sentiarazi nauzu: Ez didazu eman nik behar nuen tarte eta zure jeloskortasunak ito egin nau.

Nik ez dizut zuri baimenik eskatu behar nire lagun edo senideekin geratzeko, emakume librea baitnaiz. Gainera, ezin nauzu errudun sentiarazi zurekin denbora pasatzen ez nagoen une bakoitzean. Argi dago gure artekoa harreman toxikoa dela. Horregatik, ez zaitut gehiagotan ikusi nahi. Nire ustez, tratatu txarren hasiera baino ez da hau eta nire ustez, laguntza psikologikoa behar duzu.

Agur betiko!

Ane.

Erantzunak

MAITASUNA ZAILEGIA DA

Andrés Guerrero

25

Maitasuna zailegia da · Erantzunak

7. jarduera

- Nereak Jokini idazten dio berearekin maiteminduta egon zela aitortzeko eta zergatik alde egin behar izan zuen azaltzeko.
- E.E.: Nereak ez du ondo erreakzionatu, bere bizitzatik guztiz desagertzea izan baita bere erabaki drastikoa.
- E.E.: Jokin, beharbada, Nerearekin haserre egongo da bere bizitzatik desagertu zelako azalpenik eman gabe. Gutuna irakurriko balu, Nerearen jarrera ulertuko luke eta haserrea pasatuko litzaioke.

8. jarduera

- Neskak ez du euskaraz ondo egiten ; neskak aukeratutako mozerroa; "sudaka" mespretxuzko hitza erabiltzen du mutiko xenofobo batek Hego Amerikako pertsonak izendatzeko.
- E.E.: Xenofobia: atzeritarrekiko mespretxua.
- E.L.

9. jarduera

- E.L.

10. jarduera

- Jokin, Aimar eta Nerea dira protagonistak.
- Uste zuelako Jokin Nerearekin maiteminduta zegoela.
- E.E.: Aimarrek bazekien hausturak min emango ziola, baina hala ere ausarta izan zen eta Jokinen sentimenduak ulertu zituen.
- E.L.

Irakurmen-testa

1 b; 2 c; 3 a; 4 b; 5 c; 6 a; 7 b; 8 b; 9 c; 10 a.